

Elkarteentzat informazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzea

Elkartea sortzeko behar diren dokumentuak bete ondoren, elkarte gisa izena eman behar da.

- 2018ko urriaren 2tik, izapideak elektronikoki baino ez dira egiten.
<https://www.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-elkarteen-erregistroa/web01-tramite/eu/>
- Elkarte baten eraketa inskribatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - Eraketa-akta. Bazkide sortzaileek sinatuta egon behar da.
 - Estatutuak. Orri guztiak bi aldeetatik, lehendakariak eta idazkariak sinatu behar dituzte.
 - Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsona guztien Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) fotokopia.
- Gehienez ere hiru hilabeteko epea igaro ondoren, Erregistrotik elkartearen inskripzioa jakinaraziko da.
- Une horretan, akta, kontu eta bazkide-liburuak eraman behar dira (inolako oharrik gabe), Eusko Jaurlaritzan zigilatu ditzaten.
- Erregistroan inskribatuz gero, elkartearen eraketa eta estatutuak argitaratzen dira.

